Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gaxuxa Cledou

Lohitzüne-Oihergi, Zuberoa (1937)



Aurkibidea

Biografia



Lohitzüne-Oihergi udalerriko Oihergin jaio zen eta Lixozen bizi zen elkarrizketa egin zitzaionean, Zuberoako mugatik hurbil dagoen Biarnoko herrian.

Zintak

LOH-001

- **Proiektua**: Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Data**:
- **Iraupena**: 37 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Maulen dago bakarrik apaiza

- **Erref**: LOH-001/003
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:05:15. **Bukatu**: 00:06:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Herriko festetan bada meza Oihergin, Baina bestela Maulera joan behar. Eliza nolakoa den. Lehen herri guztietan zen apaiza, orain Maulen soilik.

Transkripzioa
- E... baduzü meza, bena bestela Maulen, ez beita /ezpeita/ apezik!
- Beraz zoinek eramaten zütü, autoan?
- E... hor denak!
- Hor denak?
- Bai.
- Erraiten düenak eramanen zütüela, horrek?
- "Ou elle... Qui c'est qui m'amène le plus souvent ?"
- "Ca dépends, chacun son tour !"
- E?
- "Chacune son tour !"
- "Et oui, voilà e..."
- Zein ...!
- Bai. Hor denak.
- Eta eliza polita düzüe, hor?
- Bai.
- Polita da?
- Bai. E... "jolie pet(ite)"... A! Eliza ejer bat, e... untsa entertenitia, bena... ez düzü /eztüzü/ apezik...
- Bai, hori da pena, ez?
- Lehen, bazen apeza Sarrikotan...
- A?
- Bazen Ezpeizen...
- Bai.
- Bazen Bildozen...
- O!
- Eta Maulen! Uai, Maulen bea.
- O... eta besterik ez? Batere?
- Sohütan ez.

2. Amak ez zekien frantsesik

- **Erref**: LOH-001/005
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:09:38. **Bukatu**: 00:10:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Amak ez zekien frantsesik, konprenitzen zuen arren. Aitari koronel baten emazteak erakutsi zion frantsesa soldadutzan.

Transkripzioa
- Eta zuk, txikitan, euskeraz elekatzen zenun? Txi(kitan)... ttipitan, zuk, euskeraz...?
- A etxen? Ama... amak ez... amak ez beitzakien /ezpeitzakien/ frantsesa.
- Amak ez zekien? A, amak ez zekien frantsesa?
- Ez zakien /etzakien/ frants(esa)... urte bat beitzen egonik eskolan...
- A...?
- Kunprenitzen zien egonik beitzen Maulen famarzia batin, neskato, konprenitzen zien frantsesa, bena hanitx gaizki mintzatzen.
- A bai, e?
- "Voilà."
- Eta aitak?
- Aitak hobeki, e... egonik beitzen soldado... "et... comment on ap(pelle)... ? Chez un... colonel..."
- A, koronel? Koronel baten etxean?
- Etxean. Eta hain emaztiek eakutsi zün frantsesa.
- A?
- Bai.

3. Bost kilometro oinez eskolara joateko

- **Erref**: LOH-001/006
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:10:35. **Bukatu**: 00:11:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Etxetik bost kilometrora zuen eskola. Neguan gauez partitzen ziren etxetik eta aitak laguntzen zien. 25 haur ziren. (Geroago, Oihergiko elizako kanpandorrean egin zuten gela bat). Eguerdian bazkaltzera itzultzen ziren etxera. Ura eta lokatza izaten zen bidean, ez baitzegoen asfaltatuta.

Transkripzioa
- Eta zuk, eskolan...?
- Eskolan.
- Frantsesa?
- Eskolan, ni e... es(kolan) ni eskolan hasi nintzan... bost kilometra eskolaa e! Etxetik eskolaa, bost kilometra.
- Oinez?

- Bai, "bien sur", oñez! Eta negian, aitak lagüntzen gintüzün egüna jin artio, behar beitzen gaiegi partitü. E gio... gio, beiginen hogoita hiru edo hogoita bost haur herriin, egin zien eskola bat elizako kloxerriin.
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Eliz... elizako kloxerriin. Et... eta ordian, juiten ginen eskola hartaat, eta egüetan bazkaitea etxeat.
- Oinez?
- "Ah bien sur."
- Eta gero arratsaldean bazkaldu, eta gero eskolara?
- Eta bai. Uñez bai...
- Oinez?
- Hola... hola hur bazen zonbait aldiz bidian... "Et oui... comment dire...? C'était pas goudronné !"

4. Gerla denboran goserik ez

- **Erref**: LOH-001/009
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:14:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:
Gerra denboran alemanak ez ziren herrira etortzen. Ez zuten goserik pasatu, beti bazen zer jana, gazna, ogia, zopa, esnea eta abar.

Transkripzioa
- Alemanak etorri zirenean?
- Han... han ez zen /etzen/ alemanik.
- Ez e?
- Ez, bena ez zen /etzen/ alemanik, "mais... du trafic y'avait quand même eh..."
- A... Hona-etorria?
- Behar beitzen jan...
- Hori da...
- Eta gue aitak... "il allait, là où y'avait eh, de quoi acheter..."
- Hori da, e... jana zegoen tokira...
- "Voilà, oui."
- Bai, bai, bai, bai... Urte gogorrak izan ziren?
- Ez guetako, ez.
- Ez e?
- Ez zen /etzen/ nahi zena jateko, bena... bazen beti zerbait.
- Beti zerbait?
- Ga(zna), egiten güniin gazna...
- A bai...
- Eta etxen bazen eznia, eta gaiaz, gaiaz jaten güniin zopa, amak egiten z[...] baatze bat ederra, eta gaiaz, bazen zopa, eta eznia e... "'Xo', y'a pas quelqu'un, là...?" Eznia, ogi pake(t) batekin...ga[...] barnen.

5. Pentze aldapatsuak etxaldean

- **Erref**: LOH-001/012
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:17:16. **Bukatu**: 00:18:18

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Etxe ondoan pentze aldapatsu bat zeukaten. Ezin zen orgarik sartu, eta barrenera belarra jaitsi eta han kargatzen zuten.

Transkripzioa
- Etxen ondun, bazen pentze bat... hola!
- O...?
- Hola e!
- Bai.
- Xütik egoiteko, behar zen makila hartü e!
- Bai e?
- Bai.
- Eta han ebilten zinen?
- Bai, han eta... Eta ni xipi nintzalaik, belarra mozten zen han. Belarra...
- Bai...
- "A la..."
- Dailüekilan?
- Bai.
- A bai e?
- E...
- Zuk, mozten zenuen... Zuk lan(tzen)...?
- E... bai, "un peu, oui".
- Bai, bai, badakizu.
- "Un peu, je sais. Et après..."
- Eta gero?
- Gero...! E... idortü zelaik...
- Bai...
- Ez beitzen /ezpeitzen/ orgak joaiten ahal haat... e... han beitzen hola...
- Bai...
- [...] güniin zolalat!
- Bai, bai.
- Eta han orgak üzten, eta han kargatzen.
- Hori da.

6. Ilobak Donapaleura eskolara

- **Erref**: LOH-001/018
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:24:48. **Bukatu**: 00:25:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Donapaleura joaten dira ilobak eskolara. Bere denboran 25 bat haur ziren Oihergin, orain 5-6 besterik ez.

Transkripzioa
- Ordian e... Donapaleün! Oai e... Donapaleün. Otobüsa heldü baita xerka.

- A, bai...
- Gü, bagüniin eskola, Oihergin.
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai.
- "Mais"...
- Euskaraz?
- Ba... baginen hanitx haur, hogoita bost edo sei, herrian. Eta oai, "je sais pas... peut-être cinq... cinq ou six ou sept..."
- Hori da... Orduan orain, bo!
- Ordiin oai, otobüsa heldü da hauren xeka, ta... Donapaleüat jüiten.
- Bai, oso ondo. [...] frantsesean ebilten dira, edo ikastolan? "O sea" eskolan frantsesean, edo ikastolan?
- Bai, bai, nik...
- Frantsesean?
- "Oui". Bai, nik uste bai, frantsesa, bai. Ez dit /eztit/ uste [...] ikastola... "non".
- Ez, ez... frantsesean.
- Ez.

7. Oihergin zuberotarrez, Lohitzunen manesez

- **Erref**: LOH-001/020
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:27:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Izen-abizenak. Oihergin jaio zen. Oihergin xuberotarrez mintzatzen da, baina Lohitzunen manexa (behenafarrera) gehiago

Transkripzioa
- Eta zü, ze izena düzü?
- Gaxuxa.
- Gaxuxa?
- Gaxuxa, bai. Ü... xübeatarrez, Gaxüxa, eta manexez, Gaxuxa.
- A, Gaxuxa manexez?
- Bai.
- Eta abizena? Gero, 'Cledou', deitura?
- 'Cledou'.
- 'Cledou'.
- "Voilà."
- Eta non sortü zinen?
- Oihergin.
- A... Oihergi! E... nola da? 'Lohitzüne-Oihergi'?
- 'Lohitzüne-Oihergi'. E... hebentik zortzi-hamar kilometra düz(ü).
- Bai.
- "A peu près."
- Eta han, xiberotarrez elekatzen da?
- Bai.
- Denak xiberotarrez?
- Lohitzünen ez, Oihergin bai.
- A bai, e? Lohitzünen manexez?
- "Un peu. Oui. Y'en a davantage qui parlent 'manex' à Lohitzun..." eta Oihergin, haboo xübeatarra.

- Eta dira herri bera? "Bueno" "commune" bera?
- Bai, "Lohitzun-Oyhercq, c'est la même commune."

8. Oihergiko eskola ezkila-dorrean

- **Erref**: LOH-001/022
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:27:55. **Bukatu**: 00:29:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Hasieran ez zen eskolarik Oihergin, Lohitzunera joan behar zuten bost km eginez, eta azkenik eskola egitea erabaki zuten ezkila-dorrean. 15 etxe bakarrik ditu Oihergik

Transkripzioa
- Oihergin beita eliza... eta han... [Ai] hatsa... hatsarrian, ez zen /etzen/ eskolaik, Oihergin, eta behar günizün jun Lohitzüneat.
- Bai.
- "Mais y'avait cinq kilomètres à faire !"
- Bai.
- "Et alors on avait décreté que... on... ah oui, 'üskaaz' !" Ordian erran... erran zizien eginen zela eskola bat...
- Bai, bai.
- Oihergin, eta egin zien elizan. Eliz(a)... "'le... le clocher', comment ça s'appelle ?"
- A... bai, 'kanpandorrea'.
- Bai.
- 'Ezkila dorrea'.
- "Voilà", han.
- A han egin zen e?
- Bai, eskola han.
- Eta txipia da Oihergi e?
- E, oai ttipi... "Oui, y'a... attendez, je vais vous dire combien... Un, deux, trois..." Bat, biga, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bedeatzü, hama(r), hameka, hamabi, bo... Eman dezagün hamabost etxe.
- Hamabost etxe? O? Bena badütü bista politak e?
- A bai! Oihergi(k) bai e!
- Ze polita e!
- A, ze...
- Dena ikusten da!
- Dena! Domintxiñe...
- Bai...
- "De..." Oihergiko elizain ondotik, ikusten düzü e... Domintxiñe, "il faut le savoir."

9. Sarrikotapean josten ikasten

- **Erref**: LOH-001/023
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:29:34. **Bukatu**: 00:31:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Sarrikotapean ibili zen josten ikasten eta han ezagutu zuen senarra, Lixozekoa. Oihergi mendian dago, Lixoze, aldiz, lauagoa da.

Transkripzioa
- Eta gero, Lixozerat noiz etorri zinen?
- Eta e... "je s(uis)"... Jin nündüzün... "oui"... josten ikastea...
- A bai?
- Sarrikotaat. "Le village à côté, là."
- Bai.
- Eta ordian, ene senarrain ezagützia egin!
- Bai, Lixozen.
- E... hua [...] beitzen.
- Bai.
- E... nik banien e... hemezortzi urtetaik, hogoita biga. Eta gio, nik urte bat igaan dizüt josten ikasten eta... gio etxeat jun, laneat... "à la famille". "Et après... petit à petit", polliki-polliki, e... ene ikustea heldü zen! "Et après, on s'est mariés." Eta gio ezkondü. "Voilà."
- Eta zer da politago? Oihergi edo Lixoze? Zoin politago?
- A... Ez da /ezta/... ez da /ezta/ bardin!
- Ez da?
- Oihergi han gaiñian da...
- Bai.
- E... bista handiaekin, eta Lixose plat, plata da heben...
- Bai, dena plat!
- Bai, "voilà".

10. Bearnesa eta euskara, biak dakizki

- **Erref**: LOH-001/024
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:31:05. **Bukatu**: 00:34:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Bearnesa ikasi zuen apur bat, aitaginarreba eta amaginarreba hizkuntza horretan aritzen baitziren beti. Baina euskaraz hobeto konpontzen da. Lixozen badira euskaldunak, baina denak kanpotik ezkontzaz etorriak. Senarrak baino hobeki mintzatzen zen bearnesez.

Transkripzioa
- Eta badakizüla biarnesez? Zeren eta hau ez beita Eüskal Herria...
- Biarnesez nekez mintzo niz, bena ene bopera eta bellemerak huk beti ari beitzien biarnesez...
- Bai.
- E... konprentitzen düt biarnesa. Gio ez aise, hain aise mintzatzen üskaa bezan. "Voilà".
- Eüskaraz hobeki?

- Bai.
- Eta anitz... hanitx eüskaldün badira?
- Nun?
- Lixozen?
- Of... e... "un, deux... oui..."
- Bai e?
- "Lotis...", "lotissement" berri hoitan...
- Bai.
- Ez dakit /eztakit/ jüsto zonbat baden, bena bestelan, hanitx etxetan, bai. Bat edo biga.
- Bai.
- Emaztiak nunbaitik jiten dielaik, üskaldüna, edo gizona jiten delaik, hua e üskaldüna zonbait aldiz, ez beti, bena zonbait aldiz.
- Bena heben berekorik ez da, ez? Denak kanpotik jinikoak?
- A heben... e... etxe hau, ene boperak erosi [...] , bena...
- Bai...
- "Combien ?"
- Aspaldi.
- Bai aspaldi, "soixante ans ou soixante-dix ans, quoi..."
- Bai. Bena ez dela heben berean sortükorik, ez dela eüskaldünik? Denak etorri dira.
- A bai, bai, denik etorriik. Oro. Heben Biarne düzü heben.
- Bai, Biarno. Zure senarra, hebenkoa?
- Bai, hebenkua. Bena haik beno hobeki banakizün biarnesa!
- Bai e?
- Beti frantsesa beitzien...
- A bai, e?
- Bi... bi anaia zütüzün, eta huk beti frantsesez, ta etxekuk, beti biarnesez! "C'est drôle, eh !"
- Pena! Pe... hori domaia da, e?
- "Mont beau-père et ma belle-mère parlaient toujours béarnais !"
- Beti e?
- Beti! Eta...
- Eta zü, eüskaraz? Zük, arrapostüa eüskaraz?
- A ez, ez, ez, ez, ez! Frantsesez!
- Frantsesez. Bena hekin ikasi, biarnesain kunprenitzen.
- Eta nola mantendü... norekin elekatü düzü, eüskaraz? Zük, norekin elekatü düzü?
- Heben?
- Bai.
- A heben eta abantxü etxe ootan badüzü eüskaldünak!
- Bai, bai, bai, bai.
- Bai.
- Sarrikotan erran deiküe etxe güzietan dakiela eüskaraz...
- Heben?
- Emaztekiek.
- Bai, ez oro... orotan [...] bana abantxü orotan bai.
- Bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-18

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com